

Antonia Manot

Hizketaldi bat





Itzulpena: *2013ko apirilaren 30a da gaur. Zarautzen gaude, Antonia Manot andrearen seme baten etxean, Erlea aldirako elkarrizketa egiteko asmoz.*
 ASUN GARIKANO



Platera

Bernardo Atxaga: Antonia, plater bat daukazu eskuetan.

Antonia Manot: Bai. Hiru ekarri zizkidaten. Semearen abokatuen iloba bat etorri zen, Bartzelonakoa, eta hala esan zidan: plater batzuk ekarri dizkizut sukaldean jartzeko. Jende hark asko lagundu zidan, eta kariño handia diet.

B. A.: Noiz izan zen?

A. M.: Ba, semearena pasa eta hilabetera edo.

B. A.: Segituan, hortaz.

A. M.: Platerena konformidade handia izan zen niretzat. Egun haietan niri plater haiek ekartzeaz akordatzea... plater horiek urrezkoak ziren niretzat! Gertatzen ari zena pixka bat ahazteko ekarri zizkidaten.

B. A.: Abokatuekiko harremana ez zen profesional hutsa izan, ezta?

A. M.: Zoragarria izan zen. Ni bi aldiz izan nintzen Bartzelonan. Epaietan, eta gero beste behin, kartzelan zegoela. Erregina bezala tratatu ninduten. Izugarri jende jatorra zegoen. Abokatuak berak, jator hutsak, eta beste gizon bat ere bai, semea kartzelan zeukana. Bere etxea utzi zidan. Lagun batekin joan nintzen, eta zoragarria izan zen. Ezertaz ezagutzen ez, eta atea zabaldu eta era hartan laguntzea... handia izan zen hura.

B. A.: Kasuaren nondik norakoak irakurrita, deigarria egiten da inguruan egon zen inplikazio hori. Abokatuak beren anaia balitz bezala bizi izan zuten Txikirena... edo Jonena... edo Juanena, zuk esaten zenion bezala.

A. M.: Bai, abokatuak ezin izan ziren hobeto portatu.

B. A.: Hortaz, plater hauek kontsolamenduaren hasiera izan ziren zuretzat.

A. M.: Bi txikiak sukaldean dauzkat oraindik. Beste hau, erdikoa, erloju bat erregalatu zidaten, eta kendu egin nuen. Baina beste biak jarrita daude, 38 urte daramatzate sukaldeko horman.

B. A.: Bolada horretan opari asko, dei asko izan al zenituen?

A. M.: Opariak... opariak... ez nuke esango. Ez zuten dirurik erregalatzeko, ez zuten ezer erregalatzeko, baina halako kariñoarekin etortzen ziren! «Ama, kaferik ba al daukazu?», eta altxa eta berak joaten ziren bila. «Zu ez altxa, ama; zu egon lasai, ekarriko dugu guk eta.» «Ardo pixka bat ba al daukazu? Guk aterako ditugu basoak...» Eta nik neure artean: «Zer ederra den hau!».

Kepa Paredes: Oraindik harremana badugu abokatuekin. Orain dela lau urte Bartzelonan izan ginen.

A. M.: Zoragarri portatu ziren. Udaletxeko zinegotzi batekin bazkaltzen eta dena izan ginen. Bartzelona guztia erakutsi ziguten.

Kepa.: Hemen ez bezala, Euskal Herrian ez bezala. Esan nahi dut, Euskal Herri mailan ez dute ezer egin, eta han, Bartzelonara joan, Udaletxea eta Parlamentua erakutsi, omenaldia...

A. M.: Eta nik neure artean: nolatan maite zuten horrenbeste? 38 urte pasa dira, eta hil zuten tokia katalanek erramillatez beteta daukate oraindik. Ahaztuta eduki behar zuten honezkero, baina ez dute ahazten.

B. A.: Harritu egin zintuen halako harrerak?

A. M.: Gertatu dena sekula ez nuen imajinatuko. Bazter guztietako jendea pasatu da nire etxetik: hemengoak, Frantziakoak... Nik esaten nuen: baina, nola liteke? Bazter guztietako jendea. Semearena pasa eta laster, Bilboko senar-emazte batzuk etorri zitzaizkidan, adin batekoak, hirurogei urte edo gehiago. Salatxora pasa nituen, kafea eman nien, eta abiatzera zihoazela zer esango eta: «Tori, tori mila pezeta semearen arimaren alde meza ateratzeko». Nire etxean sekula ez da inoren sosik sartu, baina hartarako izanda, hartu eta eskerrak eman nizkien. Bazihazten, eta esaten didate: «Bi mutiko txikiak eramango ditugu». Nire bi seme txikiak eramane nahi zituzten, bost urtekoa eta zazpi urtekoa. Esan nien: «Et, et, nire semeak ez dira hemendik mugituko». Bilbokoak zirela esan zidaten, eta bi mutikoak eramane egin behar zituztela, hemen egun haietan nahasketa handia zegoela eta. Nire semeak ez zirela inora joango esan nien. Haietako bati eta bati, oso etxebizitza handia zeukatela-eta... Ez zituzten eramane.

B. A.: Proposamen harrigarria iruditzen zait, benetan.

A. M.: Ba harrigarriena oraintxe kontatuko dizut. Beren kafea hartu, eta hala, joan dira. Handik gutxira, edo ordu batzuetara, pareko bizilaguna etorri eta esaten dit: «Zein izan duzu etxean?». «Bilboko senar-emazte batzuk». Eta berak: «Ba, ez ziren nornahi. Txoferra zekarten, eta Espainiako banderaxoa autoan».

B. A.: Zer jende ote zen?

A. M.: Inoiz ez nuen jakin.

B. A.: Espainiako banderarekin, auto ofiziala izan behar zuen. Garai hartan, edo gobernadorea, edo enbaxadorea edo horrelako kargu handiren bat izango zen. Zergatik egin ote zuten? Beren ideia katolikoengatik edo? Gauza on bat proposatzen ari zitzaizkizulakoan?



A. M.: Umeak eraman nahi zituzten. Ez ziren pertsona txarrak izango umeak eraman nahi bazituzten.

B. A.: **Arazo ekonomikoak izango zenituela usteko zuten.**

A. M.: Edo, etxean halako nahasketa zegoenez, zera pentsatuko zuten: bi txikiak kendu eta hilabete batzuetan guk edukiko ditugu. Ez dakit. Hilabete batzuk gurekin egon, eta gero etorriko dira atzera. Eta nik ezetz, nire semeak ez zirela joango. Gauza asko gertatu dira.

Erlojua

B. A.: **Bigarren objektua erloju bat da, ikusten dudanez.**

A. M.: Erloju hori Extremaduratik ekarri nuen.

B. A.: **Nolako zen Extremadurako zure herria?**

A. M.: Zalamea de la Serena da nire herria, Badajozen. Inguru hartako herririk politenetakoa da.

B. A.: **Zuek, Extremadurako jendeak, lotura handia duzue zuen lurrarekin.**

A. M.: Ni ez nau asko tiratu. Hangoa naiz, baina hona etorri eta hain ondo hartu nindutenez... Bost umerekin etorri nintzen.

B. A.: **Nolako izan zen etorrera? Kontaidazu pixka bat.**

A. M.: Gurasoak hemen zeuden, Zarautzen, eta anai-arrebetatik hiru edo lau ere bai. Ni falta nintzen. Nekazari eta artzain lana beherantz zihoan, senarrak ezer gutxi ateratzen zuen artzaintzatik, eta nire gurasoek seme zaharrena hona ekarri zuten. Aho bat kentzeagatik egin zuten. «Mikel guk eramango dugu», esan zidaten. Eta ekarri egin zuten. Mikel, zu zenbat urte egon zinen aitonarekin?

Mikel Paredes: Hiru edo lau urte.

B. A.: **Hemen ondo hartu zintuztela esan duzu. Zer esan nahi du horrek?**

A. M.: Ba, senarrak lana zuela, eta seme-alabak ere hamalau urterekin lanean jarri nituen. Orduan lana bazen. Arropa ematen zidaten, lagundu egiten zidaten. Denetik. Oso ondo hartu ninduten, eta ahaztu egin nintzen pixka bat hangoaz, han ez neukalako hemengo bizimodurik. Hemen lan egin, baina jan egiten zenuen, eta han ez zeneukan hori.

B. A.: **Askotan esan izan da Extremaduratik edo Galiziatik etorritako jendea gaizki hartzen zela hemen.**

A. M.: Ez da egia. Nire kasuan, ez. Ondo hartu ninduten hasieratik.

B. A.: **Gogoratzen al zara non erosi zenuen erlojua?**

A. M.: Ez ba. Nola erosi ote nuen nik han? Auskalo, nahiko lan banuen umeekin eta beste guztiarekin. Baina kontua da handik ekarri nuela. Orain beste bat ere badaukat, baina hau beti etxean eduki dut. Oroigarri bat da. Bidaiaren batera joan behar nuenean, ni asko ibilia bainaiz, erloju hori jarri behar nuen, beste batekin ez nintzen esnatzen. Horretarako neukan. Giltza eman eta primeran ibiltzen da.

B. A.: **Eta gauez tik-tak egiten du edo ez?**

A. M.: Ba, horretaz ez naiz gogoratzen.

B. A.: **Asko ibilia zarela esan duzu.**

A. M.: 44 urtean ia urtero bidaiatu dut, ekainean.

Lupe Paredes: Ekarriko al dut maleta?

A. M.: Herritik ekarri nuen maleta da. Bodegan geneukan maletatxo bat.



Maleta

B. A.: Hau da, hortaz, maleta, lehenengo maleta. Erlojua utzi eta maletara pasatuko gara gai berarekin jarraitzeko. Maleta honekin etorri zinen, beraz.

A. M.: Bai, eta bidaia guztietara eramán dut, besterik ez nuen eta. Gero, orain dela urte batzuk, beste bat erosi nuen, handixeagoa, baina bestela hau eramaten nuen beti. Orain dela gutxi esan nion alabari: «Lupe, norbaiti eman al genion maleta gorria?». «Zer ba?» «Ba, bodegan ez dagoelako. Horra, ba: eramán dute eta ez dute ekarri.» Eta atzo, honetaz ari ginela, bodegara jaitsi, eta hantxe zegoen. Sitsa ere egin zaio barrutik. Maleta honekin berrogei bidaia baino gehiago egina naiz ni.

B. A.: Deigarria egiten zait bidaiekin kontu hori.

A. M.: 34 urtean fraideetan egin dut lan, hemen, Zarauzko frantziskotarrekin, ikasleei otorduak serbitzen. Ekainean eskurtsio bat egiteko ohitura zuten, autobus bat betetzen zuten hemengo, Donostiako eta beste herri batzuetako jendearekin. Eta ni ordurako oporrak hartuta egoten nintzenez, haiekin joaten nintzen.

B. A.: Eta zer lekutara joaten zineten?

A. M.: Esate baterako, Frantziara. Bi aldiz joan ginen Soldadu Ezezagunaren Hilobia ikustera, Parisen. Asko gustatu zitzaidan hori. Jesusen Bihotza ikustera ere joan ginen. Fátiman ere egonda nago, eta Extremaduran, eta Sevillan bi aldiz. Sevillara joan, eta jendea gustura, dantzan eta kantari. Primeran pasatzen genuen. Eta handik bi edo hiru urtera esaten genuen: «Nora joango gara orain? Zer ederki pasa genuen Sevillan!». Eta Sevillara berriro.

Extremaduran sekula herritik mugitu gabea nintzen, eta hona etorritik geroztik dena ikusi dut, Extremadura osoa ere bai. Extremadurako herri txiki haiek ikusi eta esaten genion elkarriz: «Begira, zer herri politak, eta ez genituen ezagutzen!». Santiagon ere bi aldiz egona naiz. Eta nik lehen ez nuen ezer ezagutzen.

B. A.: Esadazu, zer moduz moldatu izan zara frantziskotarrekin?

A. M.: Nik frantziskotarrei buruz ezin dut hitz bat txarrik esan. Umeak hazten lagundu zidaten.

B. A.: Esan nahi duzu, haientzat lan egiteaz gain, ekonomikoki laguntzen zizutela?

A. M.: Janariarekin eta denarekin. Ni jantokian nengoen, laurogeiren bat umeri serbitzen. Senarra hil zitzaidanean...

B. A.: Zer urtetan izan zen hori?

A. M.: 1971n, 43 urterekin. Orduan, senarra hil zenean, frantziskotarrek batzarra egin, eta deitu egin zidaten. Kontuan izan orduan 40 frantziskotar zeudela. Orain gutxi daude, baina orduan poza ematen zuen. Aita Bartolok, atezainak, eman zidan albistea. «Aita Bartolo, zer dugu?», galdetu nion. Eta berak: «Ba, begira, zera pentsatu dugu, zuk egunero jantokiko ogia etxera eramatea, umeentzat. Lau ogi behar badituzu, lau; bost behar badituzu, bost; behar duzuna hartu eta eramán».

Behar genuena ekartzen nuen, ez inori emateko. Bost ogi ekartzen nituela uste dut, eguerdirako eta gauerako behar nituenak. Sei urtean egunero eman zizkidaten.

Baratzea ere bazuten. Tomateak edukitzen zituzten, eta irakinarazi, olio eta behar zena bota, eta berrogeiren bat pote prestatzen zituzten niretzat. «Gauerako baduzu —esaten zidaten—. Orain patata batzuk frijitu, eta umeek afaltzeko badute.» Hori zen laguntzea. Semea joan eta kotxean ekartzen zituen poteak.

B. A.: Aizu, Antonia, ordu erdiren bat daramagu hizketan, eta gehien atera den gaia laguntasunarena da: fraideen laguntasuna, abokatuena, zutaz akordatu zen jendearena...

A. M.: Fraideek oso baratze ederra zuten eta nik egunero letxugak edo beste edozein gauza ekartzen nuen, zegoenetik. Untxiak ere bazituzten, zazpi untxi hiltzen zituzten as-



tero. Ni lanera joaterako, untxia perrail batean prest edukitzen zuten niretzat. «Antonia, untxia bere tokian daukazu», esaten zidaten. «Bihar patatekin jarri eta bazkaria baduzu». Hori zen laguntzea.

Mikel eta Jon lanean hasi zirenean, jakinaren gainean jartzera joan nintzen: «Aita Bartolo, hemendik aurrera ez dut ogirik behar, bi mutilak lanean hasi zaizkit eta». Baina baratzeko tomaterik onenak niretzat izaten ziren gero ere. Umeak hazten lagundu zidaten niri fraideek. Inor nire aurrean haien kontra hasiz gero, begiak aterako nizkioke!



Kutxa lakatua

B. A.: Oso kutxa polita daukagu hemen. Zer da, lakatua?

A. M.: Senarrak egin zidan, joste lanetarako. Ez dakit puskatuta ez ote dagoen.

B. A.: Bi papagai dauzka hemen. Zer jartzen du hor?

A. M.: Antonia Maria. Senarrak jarri zuen.

B. A.: Bi papagai eta hemen lehoi bat. Kromoak dira.

A. M.: Zurgindegi batean egiten zuen lan, manufakturan, eta han egin zidan.

B. A.: Zer izen zuen senarrak?

A. M.: Pedro Paredes.

B. A.: Artzaina zela esan duzu.

A. M.: Artzaintzatik ezer ez zegoenez, hona etorri eta zurgindegian hasi zen. Segituan hartu zuten, gaur etorri eta bihar lanean.

Mikel Paredes: Aurrena Bartzelonan egon zen bi urtez. Ni hemen nengoen bitartean, aita Bartzelonan zegoen eta ama Zalamean. Gero, denok aitona -amonekin Zarautzen elkartzea erabaki zuten.

B. A.: Hortaz, senarrak erregalatu zizun kutxa hau. Ez al didazu kontatu behar nola ezagutu zenuten elkar?

A. M.: Bera artzaina zen, eta ni oso neska fina. Gurasoak nekazariak ziren, baina nik josi egiten nuen, jostuna nintzen, eta etxeko *señorita* nintzen. Bost anai-arreba ginen, eta ni *señorita*. Besteak sorora joaten baziren, *señorita* etxean geratzen zen. Ahizpak –atzo bertan aritu nintzen berarekin telefonoz hizketan– hala esaten zuen: «Gu lanera, eta hau inoiz ez doa lanera». Ez ninduten eramaten. Haien *señorita* nintzen.

Bera artzaina zen, laguntzaileak zituen, eta buru asko. Herrietan izaten ziren dantzaldi haietako batera joan, eta maitemindu egin ginen, 18 urterekin. 21ekin, ezkondu.

B. A.: *Boda eta tornaboda* egiten zen, ezta?

A. M.: Ezkondu eta hurrengo egunean beste bazkari bat egiten zen. *Tornaboda* esaten zitzaion. Baina ezteiak ez ziren hemengoak bezalakoak izaten. Nire ezteietan, ez naiz ondo gogoratzen, baina hogeiren bat lagun izango ginen, bere familia eta nirea kontatuta. Jende gutxi izaten zen, eta gero ez zen ezkonbidaiarik eta horrelakorik. Zure etxean oheratu, eta kito dena.

B. A.: Hortik etorriko zitzaizun gero halako bidaiatzeko gogoa...

A. M.: Horixe, han aprobetxatu ez nuena, hemen aprobetxatu. Orain gutxiago ibiltzen naiz, asko nekatzen naizelako, baina bestela bidaiatzen jarraituko nuke. Lehengo urtean joan nintzen azkenekoz, ekainean, Aita Etxeberriarekin. Baina hil egin da, Aita Etxeberria gizajoa, dena antolatzen zuen fraidea, eta pena dut aurten ez naizela joango.

Kantu mexikarren eta Quilapayúnen zinta

Lupe Paredes: Eta zure ilusioa zein izan da beti?

A. M.: Mexikarrak. Eroa bezala jartzen naiz. Telebistan bat entzunez gero bolumena altxatzen dut. «Ama, ez zaude burutik sano!», esaten dit alabak. Nire Jonek kantu mexikarren zinta bat bidali zidan. Etxean nuen, baina ezin izan dut aurkitu.

B. A.: Korreoz bidali zizun, opari gisa?

A. M.: Bai. Denbora gutxi egin zuen etxetik kanpo, oso gutxi. Eta kantu mexikarren zinta bat bidali zidan, ez dakit nongoa, idatzia eta dedikatua.

Lupe: ¡Que viva Chile!, Quilapayúnen.

A. M.: Zenbat aldiz esan ote dut, ahal izan banu, Mexikora joango nintzela! Eta mundu guztiak esaten zidan: «Ba, desilusio ederra hartuko zenuke, ez pentsa han mexikarrek egun osoa kantari ematen dutenik». Hemen euskarazkoan pelikula mexikarrak jartzen dituztenean, segituan esaten didate: «Ama, jarri euskarazkoa, mexikarrak daude eta».

B. A.: Orduan, mexikarrak gustatzen zitzaizkizula eta, Jonek Quilapayúnen zinta bidali zizun. Garai hartan, Quilapayún eta Paco Ibáñez Paris aldetik zebiltzan.

Mikel Paredes: Ni Parisen izan nintzen Jon hil zutenean egin zen omenaldi moduko batean. Telesforo Monzon eta emaztea tartean ziren, eta Urkok eta kantari pila batek hartu zuten parte. Kantatu baino gehiago, hitz egin eta egun haietan gertatutakoa azaltzen zuten.

B. A.: Jonena pasa zenean Mikel laguntza handia izango zen zuretzat.

A. M.: Handia, bera zen zaharrena eta. Berak pasa zuen dena.



Kolonia



B. A.: Orain, kolonia.

A. M.: Kolonia honek bere historia du. Hemengo lagun batek, zarauztar batek, urtero-urtero nire urtebetetze egunean horrelakoxe bat erregalatu dit azken 45 urteotan. Urtero bere koloniarekin etortzen zait. Bizilagunak gara, eta amistade handia izan dugu.

B. A.: Eta zer egiten du?

A. M.: Zorionak esatera etortzen zait. Kafea hartu, eta kolonia ematen dit. Eta ofertan badago eta toalla batekin badator, toalla ere ekartzen dit. Hiru toalla badauzkat ja.

B. A.: Nor den esan behar didazu, inondik ere pertsona berezia da eta. Badakizu jende gehienari ez zaiola beste jendeagatik inporta.

A. M.: Niretzat familiakoa bezala da.

B. A.: Zer izen du?

A. M.: Mikele.

B. A.: Zerbait esan al zenezake berari buruz?

A. M.: Berari buruz gauza on asko esan nitzake, eta txarrik bat ere ez. Semearena pasa, eta hor egon zen bera beti, egun bakar batean ez ninduen bazterrean utzi.



1. Xabier Sanchez Erauskin et al.:
Txiki-Otaegi. Hordago, 1978.

Txiki, Haizea eta Sustriak. Haizea
eta Sustriak Kultur Elkarte, 2007.

HAIZEA ETA SUSTRAIAK

AGUR BAT.

Antonia Hanoit

B. A.: Oso zaila izango zen. Garai hartaz pentsatzen hasi, gertaerak kontatzen dituen liburua irakurri¹..., zure eta zure familiaren gaineko presioa ikaragarria izan zen.

A. B.: Bizi egin behar zen hura. Ez da sinestekoa. Niri eman didaten bizimodua ez da sinestekoa. Hilabete eskas izango zen nire semea, Jon, hil zutela, asasinatu zutela, eta guri burua ireki ziguten. Jende asko etortzen zen etxera, esan dizut. Egun batzuetan bi litro ardo ere edaten ziren, eta oraintxe bertan bazoaz, ardorik ez dago, inori ez zaigu gustatzen eta. Bisitarien zat izaten zen.

Gau batean txirrina jo zuten, beste askotan bezala. Iluntzeko zorriak edo bederatziak izango ziren, ez naiz ondo gogoratzen orduaz.

Sukaldean geunden, bi alabak eta fraideetako irakasle bat, umeak ikustera etorrita zegoena. Hantxe geunden denok eserita. Atea ireki zieten, eta bi gizon pasa ziren barrura, ez oso gazteak. Sukaldean sartu, alabari heldu, Isabeli, eta burua ireki zioten pistolarekin jota.

B. A.: Umeari?

A. M.: Bai. Bi txikiak ez zituzten harrapatu, ez zeuden etxean eta. Laugarren pisuan zeuden, Mikeleren etxean. Nexka hartu, eta burua ireki. Irakaslea hartu, eta burua ireki. Eta niri galdezka: «Non da Mikel, zure semea?». Mikel ez zen etxean.

Mikel: Ez, ama. Beste gauza bat esan zizuten: «Mikel, zure semea, Pirinioetan atxilotu dugu». Ni une horretan Huescan atxilotuta nengoen, eta Jesukristok ere ez zekien, etxean ere ez zekiten. 1975eko urrian izan zen hori. Donostiara ekarri ninduten eta lau egun eman nituen Gobernu Zibilean.

A. M.: Halaxe, irakaslea lurrean, eta alabak odoletan. Nik ahal bezala alde egin eta eskaileretan gora jo nuen. Niri ere buruan eman zidaten, puntuak eman zizkidaten gero. Denoi egin ziguten zauria. Eskaileretan gora jo nuen, odola dariola eta oihuka: «Alabak hil nahi dizkidate!!» Mikeleren pisura igo, eta esan nion: «Jaitsi, Mikele, alabak hil nahi dizkidate eta». Abiatu zen eskaileretan behera –bere laugarrenean bizi zen, eta ni lehenengoan–, eta bera ere oihuka zihoan: «Atera, atera denok, umeak hil nahi dituzte eta!». Baina iritsi ginenerako bi gizonak joanda zeuden. Atzeko aldetik kotxera joan, eta alde egin zuten. Ez zituzten harrapatu. Burua ireki ziguten, eta inork ez zuen jakin nor izan zen.

Mikelek bere etxean oheratu zituen bi seme txikienak, bi alabak hartu zituen, ni ere hartu ninduen. «Etorri hemen lo egitera; ez duzue hor lo egingo», esan zigun. Gelan sartu eta esaten zidan: «Antonia, lo al zaude? Minik ematen al dizu buruak?» Eta nik esaten nion: «No, maitia». Eta bi alabei berdin. Kariñoa eta behar zen guztia eman zigun.

Jendea etortzen zenean, Mikelek hartu eta bere etxera eramaten zituen. «Zu egon zaitez geldi, gora eramango ditut», esaten zidan. Ardoa ateratzen zien, pintxoren bat... Badakizu, dena ematen duten horietakoa zen. Gu ere ematekoak gara, baina euskaldunek asko ematen dute. Mahaia jarri eta dena berak egiten zuen. Eta behar izan nuenean, mundu honetako beste inork baino gehiago lagundu zidan. Hortaz, nola ahaztuko dut ba nik sekula pertsona hori!

B. A.: Ezkondua da?

A. M.: Bai, bi seme-alaba ditu. Emakume zoragarria da, eta ez dut berarekiko amistadea galdu sekula. Lehengoan esan zidan: «Aspaldi ez zara etorri». Eta esan nion: «Lan askorekin nabil-eta, baina joango naiz». Joaten naiz, eta kafea hartzen dugu elkarrekin. Amistade handia daukagu oraindik.

Arrabola

B. A.: Eta hau zer da?

A. M.: Extremaduratik ekarria da. Erroskillak egiteko erabiltzen dugu. Aurrena oreka egin, arrautza eta irinarekin, gero mahaian jarri, eta honekin zabaldu, ogia bezala. Gero erroskillak doblatu, eta frijitu. Apartak daude!

B. A.: Errezetaz gogoratzen al zara zehatz-mehatz? Polita litzateke Antonia Manoten errezeta edukitzea.

Lupe: Denon artean egiten ditugu, amona, bilobak, familia guztia elkartzuta egiten ditugu erroskillak.

A. M.: Oso argazki polit bat badugu, erroskillak egiten. Denok aurreko mantala jantzi eta zazpi edo zortzi lagun elkartzeko gara sukaldian. Batek buelta eman, besteak honekin zabaldu... eta gero denon artean banatzen ditugu. Hiru seme-alaba badira, hiru kutxa. Berak bere kutxarekin etxera, eta gutxiena beti niretzat. Zera esaten didate: «Zuek bi besterik ez zaretenez...». Egiten ari garela ikusiko bagintuzu, barrez lehertuko zinateke. Ni hemen, eserita, nekatuta nago eta. Baldea jartzen didate, eta pilotak egiten. Denok aurreko mantalarekin, batek buelta eman, beste errainak azukretan pasa, eta zazpi edo zortzi lagun, txikiak ere bai. Bukatzerako, erdiak janda izaten ditugu. Probatzen hasten gara, «Zer moduzkoak atera dira?», eta bata besteari pasatzen... Puskatutako guztiak ere jan egiten ditugu.

B. A.: Gurasoengandik ikasi zenuen?

A. M.: Bai. Extremaduran gozo asko egiten da, izugarri onak gainera.



Koadroa

B. A.: Jonen koadroa daukagu orain.

A. M.: Hau Jonen erosi zidan, pisua hartu berritan, pasilloan batere koadrorik ez neukalako.

B. A.: Jonen zenbat urte zituela izan zen hori?

A. M.: Pisuan sartu berriak ginen, eta 44 edo 45 urte daramatzagu han bizitzen. Jonen hemezortziren bat urte izango zituen. Pasilloan ez neukan ezer jarria, horretarako ez zen iristen, eta egun batean etorri eta esan zidan: «Ama, begira zer erosi dizudan aurreztutako diruarekin». Eta koadroarekin azaldu zitzaidan. Han eduki nuen, baina gero kendu egin nuen, ederrago bat egin zidatelako, berea, eta hau sukaldian daukat. Baina sukaldetik ez du inork kenduko.

B. A.: Ederrago bat egin zizutela diozu, berea. Jonena, esan nahi duzu?

A. M.: Bai.

B. A.: Zer da, argazki batetik egin?

A. M.: Nafarroan egin ziotena, pasilloan dagoena.

Kepa Paredes: Morrasena.

B. A.: A, Morrasena. Pintore handia.

A. M.: Hau baino koadro handiagoa da.

Mikel Paredes: Panteoia ere Zumetarena da.

A. M.: Euskadi osoko panteoirik ederrena dauka.

Mikel: Zumeta harrigarri ondo portatu zen.





B. A.: Noiz egin zen panteoia?

Mikel: Jon ekarri eta gero. Bi panteoitan egon zen hemen, Zarautzen. Aurrena Barzelonan, gero Zarautzen utzi ziguten panteoi batean, eta gero honetara pasatu zen. Zenbait jende asko mugitu zen: Zumetak bere burua eskaini zuen hilarria egiteko, eta Artze anaiek han idatzitako poema egin zuten. Garai horretan poster bat atera zen, Jonen argazkia eta lore bat, dena ondo konbinatuta, oso polita, eta horrek panteoia ordaintzen lagundu zuen.

A. M.: Esan beharra dago panteoia dezente kostatu zela.

Mikel: Panteoia asko kostatu zen. Gogoratzen naiz nola ibili ginen sanferminetan posterak saltzen. Pila bat neraman autoan, eta jendeak dirua ematen zigun.

A. M.: Panteoia zoragarria da.

Mikel: Pasilloan dagoen koadro txiki bat ere erregalatu zion Zumetak.

B. A.: Eta argazki honetan zenbat urte izango zituen Jonek?

Mikel: Hor, hamazazpiren bat. Nirekin urpeko arrantza egitera joaten zenean atera nion argazki hori.

B. A.: Urpeko arrantza egiten zenuten, orduan.

Mikel: Lan egiten nuen tailerreko lagun batekin joaten nintzen eta bera batzuetan gurekin etortzen zen. Ez zen oso zalea, baina batzuetan etortzen zen.

Gogoratzen naiz, Joni buruzko erreportajea egin zutenean, nola esan zigun Mikel Laboak hartzeko bere kantetatik nahi genuena ezer ordaindu gabe, egile-eskubideengatik kezkatu gabe alegia. Batzuek kobratu egingo zutela esan zuten. Hemen kultur zeretan ibiltzen den enpresa batek zerbait ordaindu beharko zela esan zuen.

Laboak eta Urkok behar zen guztirako prest zeudela adierazi zidaten, eta, behar izanez gero, estudioa ere utziko zidatela. Bien portaera *chapeau* esatekoa izan zen. Nik esaten dudan bezala, hitzaren zentzu betean dira pertsonak.

B. A.: *Antonia, medaila bat daramazula ikusten dut. Zerbait dauka grabatuta, irudi bat...*

A. M.: Jonen irudia da. Beti eramaten dut medaila hau. Beti

